



Tokiko &  
eskualdeetako Europa

**EUDEL**

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

# Europako Parlamenturako 2019ko Hauteskundeak

**Tokiko eta eskualdeko  
ordezkari hautetsien mezua:**

Inplika itzazue tokiko eta eskualdeetako  
gobernuak EB indartsuago bat lortzeko!



# EUROPAKO PARLAMENTURAKO 2019KO HAUTESKUNDEAK

## (2018ko abenduak 11)

### **Tokiko eta eskualdeko ordezkari hautetsien mezua: Inplika itzazue tokiko eta eskualdeetako gobernuak EB indartsuago bat lortzeko!**

1. Geuk, Europako tokiko eta eskualdeetako gobernuen alkate eta liderrok, 41 herrialdetan ditugun 62 elkarte nazionalen kide diren 130.000 tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkari garen aldetik, Europa sendo eta batuan sinesten dugu, balio komun eta ahaltsuetan oinarrituta: demokrazia, giza eskubideak, elkartasuna, genero- berdintasuna eta zuzenbide-estatuarekiko errespetua, horiek baitira Europar Batasunaren oinarria. Planteamendu horrek Batasun osoaren zerbitzuan jarritako elkarrekiko konpromisoaren printzipioa hartzen du zutabetzat.
2. Jakin badakigu Europako Parlamenturako hauteskundeak funtsezko une batean egingo dira, EBk erronka ugari baititu aurrez aurre. Horregatik, dei egiten diegu etorkizunean eratuko den Europako Parlamentuari eta hurrengo Europako Batzordeari geure fundatzaileek erakutsi zituzten adore, dinamismo eta irmotasun berdinarekin konprometitzera, hau da, Bigarren Mundu Gerraren ostean gure kontinenteko berradiskidetze eta batasuna exijitu zenean bezala jokatzera dei egiten diegu.
3. Europako etorkizunak europar herritar guztiengan du eragina. Bada garaia hausnartzeko zer-nolako Europa nahi duten europar herritarrek, hurrengo belaunaldiei etorkizun jasangarri, egonkor eta baketsua utzi ahal izateko. Horrenbestez, erantzuna gidatu behar duena instituzioen funtzionamendua hobetzeko motibazioa izan behar da, gardentasuna txertatzeko, eta erabakiak hartzeko prozesua herritarren eta haiek aukeratutako ordezkarien arteko elkarriketan oinarritzeko.
4. Oraingo erronken mundu-dimentsioa kontuan hartuta, Garapen Jasangarriaren Helburuek izan beharko lukete etorkizuneko Europar Estrategiaren printzipio gidariak. Klimari buruzko Parisko Konpromisoak eta 2030rako Agenda betetzeko, ezinbestekoa da gure garapen-eredua sakon eraldatzea eta europar politika guztiak egokitzea. Europak munduko indar eragilea izan beharko luke, garapen-eredu berri baterako bidea erakutsiz, esku-hartze ekonomiko eta sozialeko arlo guztiak mobilizatuz eta tokiko gobernuen komunitate deskarbonizatu eta erresilienteak eraikitzen lagunduz.
5. Europak aurrez aurre dituen erronkak soilik gaindi daitezke tokiko eta eskualdeetako gobernuen ekintzaren edo ekarpenaren bidez eta tokiko zerbitzu publikoak finantzatuz. Hori lortzeko modua gobernu maila guztien arteko lankidetzaren sendoa da.
6. Zentzu horretan, Europar Batasunak tokiko mailan zein eskualdeetan sustatutako hazkundeko, berrikuntzako eta gizarte-promozioko dinamikak babestu beharko lituzke, bere anbizioekin eta lege-esparru egoki batekin lotutako baliabideekin.
7. Europako Parlamentuak<sup>1</sup> aitortzen du tokiko gobernuen funtsezko rola jokatzeko dutela Europar Batasuneko funtsezko politika landu, diseinatu, finantzatu eta aplikatzerakoan, eta aitortzen du, halaber, tokiko gobernuen Batasunaren kanpo-politiketan jokatzeko duten rola garrantzitsua. Konbentziturik dago beharrezkoa dela gobernu horien rola nabarmen indartzea, EBko etorkizuneko politikak definitzerakoan, eta azpimarratzen du gobernuak ordezkatzeko dituzten elkarten garrantzitsua, hala nola CEMRrenak, Europar Batasuneko instituzioen funtsezko kolaboratzaile bihurtu daitezen.
8. Europako Batzordeak<sup>2</sup> azpimarratzen du beharrezkoa dela tokiko eta eskualdeetako gobernuen inplikazioa nabarmen areagotzea modu egituratu batean eta subsidiarotasun-printzipioaren bidez EBko erabakiak hartzeko prozesuaren fase guztietan, horrela EBren legeriak herritarrentzat duen balio erantsia handituz.

<sup>1</sup> 2018ko uztailaren 3an hartutako erabakia, P8\_TA -PROV(2018)0273

<sup>2</sup> Subsidiariorotasunari eta Proporzionaltasunari buruzko Komunikazioa, 2018ko urriaren 23koa, COM (2018) 703-finala

### ***Honako konpromiso hauek hartzen ditugu:***

1. Europar eztabaida gure barrutietara eramatea, herritarrek parte har dezaten eta kontzienteki bozka dezaten 2019ko maiatzean ospatuko diren Europako hauteskundeetan.
2. Tokiko eta eskualdeetako gobernuak inplikatzera europar erakundeekiko lankidetzaren sorreran, gure kontinentean europar proiektuaren irudi positibo bat sostengatzeari begira eta garapen-eredu demokratiko eta irudimentsu bat sortzen laguntzeari begira.
3. Tokiko eta eskualdeetako gobernuak eta haien elkarteak mobilizatzea homologoekin lankidetzan aritzeko eta herrialde desberdinekiko elkarteak sortzeko, 2030 Agenda jorratzeko eta klima-aldaketaren aurkako esfortzuak bateratzeko.

### ***Honako hau proposatzen dugu:***

1. Lankidetzan oinarritutako gobernantza-eredu bat ezartzea, tokiko eta eskualdeetako gobernuak europar gobernantzaren egituraren duten rola osorik aitortzen duena.
2. Edukia hornitzea Europar Batasunaren Itunaren laugarren artikuluari, tokiko eta eskualdeetako gobernuak definitzen dituen europar gobernantzaren parte-hartzaile gisa.
3. EBko instituzioekin batera lan egitea, urtero eztabaidak egin daitezzen toki mailan, herritarrei irekita, euren komunitateen eta Europar Batasunaren arteko loturaz hitz egiteko.
4. Europako Elkarriketa Zibilaren modalitateak berraztertzea, estatus espezifiko bat txertatzeko gizarte zibilaren tokiko eta eskualdeetako gobernuak ordezkatzeko dituzten erakundeentzat.
5. Gardentasun handiagoa txertatzea erabakiak hartzeko prozesuan; europar erakundeek saiatu beharko lukete herritarrak hobeto informatzen euren lanari buruz, negoziazioetan dituzten jarrerari buruz eta hartzen dituzten erabakiei buruz.
6. Tokiko agintariek sustatutako proiektuak babestuz gure eskualdeen garapen jasangarrian laguntzen duten Europako politikak finkatu. Zentzu horretan, Kohesio-politika Europar Batasunaren lehentasunen erdigunean mantendu behar da; etorkizuneko "eskubideak eta balioak" eta Erasmus+ programa indartu behar ditugu eta Lurraldeen Erasmus bat sortu.
7. Europar Batasuneko Giza Eskubideen Gutuna eta batasunaren historia sustatu Europar Batasuneko herrialde guztietako eskoletan eta ezagutza sustatu erakundeen funtzionamenduaren baitan. Garrantzitsua da finantza- eta lege-baldintza egokiak sartzea, ikasle guztiek izan dezaten aukera bizitzan behin Europako instituzioak bisitatzeko.

### ***Europar Batasunari eskatzen diogu honako hau bermatu dezala:***

1. Tokiko autogobernuaren printzipioen aplikazioa Europar Batasunaren legeriaren testuinguruan Europar Batasunaren Itunaren laugarren artikularen bigarren paragrafoan eta Tokiko Autogobernuaren Europar Gutunean ezartzen den bezala. Horrez gain, bermatu beharko dute subsidiarioritasun- eta proportzionaltasun- printzipioak errespetatuko dituztela.
2. 2020tik aurrera, Erresuma Batuko tokiko eta eskualdeetako gobernuen sarbide erraza bermatzen duten akordio egokiak ezar daitezela, EBko homologoekin kooperatzeko EBko lankidetzaren bitartez. Hori Norvegia eta Islandia moduko herrialdeekin egiten den bezala egin beharko litzateke, makro eskualdeko estrategien bidez, Interreg-ekin eta AECTren<sup>3</sup> esparruetan.

---

<sup>3</sup> Lurralde Lankidetzarako Europar Taldea

# CEMR

**The Council of European Municipalities and Regions is the united voice of Europe's local and regional governments federated through 61 national associations.**

CEMR is the European section of United Cities and Local Governments (UCLG), through which it represents European local and regional governments at international level.

## Our mission

We promote the construction of a united, peaceful and democratic Europe founded upon local self-government and respect for the principle of subsidiarity.

Founded in  
**1951**

**61**  
associations

**41**  
countries

**130,000**  
local and regional  
governments

## CEMR member associations

**Albania**  
SHBSH

**Austria**  
GEMEINDEBUND  
STAEDTEBUND

**Belgium**  
BRULOCALIS  
UVCW  
VVSG

**Bosnia y  
Herzegovina**  
SOGFBiH  
ALVRS

**Bulgaria**  
NAMRB

**Croatia**  
HRVZZ

**Cyprus**  
UCM

**Czech  
Republic**  
SMO ČR

**Denmark**  
KL  
REGIONER

**Estonia**  
AECM

**Finland**  
AFLRA

**North  
Macedonia**  
ZELS

**France**  
AFCCRE  
AMF\*

**Georgia**  
NALAG

**Germany**  
RGRE  
DStGB  
LANDKREISTAG  
STAEDTETAG

**Greece**  
KEDE

**Hungary**  
TÖÖSZ

**Iceland**  
SAMBAND

**Ireland**  
LGMA\*

**Israel**  
MASHAM

**Italy**  
AICCRE

**Kosovo**  
AKK\*

**Latvia**  
LPS

**Lithuania**  
LSA

**Luxembourg**  
SYVICOL

**Malta**  
LCA

**Moldova**  
CALM

**Montenegro**  
UOM

**Netherlands**  
VNG  
IPO

**Norway**  
KS

**Poland**  
ZMP  
ZPP

**Portugal**  
ANMP

**Romania**  
ACOR  
AMR

**AOR**  
UNCJR

**Serbia**  
SKGO

**Slovakia**  
ZMOS

**Slovenia**  
SOS  
ZMOS

**Spain**  
FEMP  
EUDEL

**Sweden**  
SKL

**Turkey**  
TBB

**Ukraine**  
AUC  
UAROR

**United Kingdom**  
LGA  
COSLA  
NILGA  
WLGA

\*Associate, observer  
and invited members

## Contact

### CEMR

Square de Meeûs 1  
1000 Brussels  
Tel. +32 2 511 74 77  
info@cocre-cemr.org

### Find us on

www.cemr.eu  
twitter.com/ccreccemr



Co-founded by the  
Europe for Citizens Programme  
of the European Union